

## ***Merkatuaren segmentazioa***

Enpresa guztien gai garrantzitsuenak, bezeroak lortzea eta haiek konforme egotea eskaintzen duzunarekin eta inportanteena, bezeroak ez galtzea noski. Gure bezeroek 15tik 40-ra gutxi gora-beherako adina izango dute. Pertsona horiek prest egongo dira hizkuntz berriak ikasteko eta horrekin haien etorkizuna garatuko dute lanerako edo beste ekintzetarako prest egoteko. Bezero bakoitzak ahalmena izango du nahi dituen hizkuntzak ikasteko eta norberak eskaini ahalko dituzten hizkuntz guztiak beste pertsoneri, puntuak lortzeko aukerarekin. Puntu horiek hizkuntzak irakasteko helburuarekin lortuko dituzte eta horrela pertsona hark beste hizkuntz bat ikasteko aukera izango du.

Argi dago bakoitzak bere motibazioa izango duela hizkuntzak ikasteko, esaterako, lanerako, bidaiatzeko, tituluak lortzeko...

Motibazio ezberdinak sailkatzeko logging-a egiten dutenean dituzten interesak finkatuko dituzte eta afinitate gehien duten pertsonekin kontaktuak jarri ahal izango dira. Bezeroen helburuak desberdinak izango dira noski, multzo batek bidaiatzeko erabiliko du app hau, joan den lekura beste jendearekin komunikatzeko adibidez. Gero beste batzuk soilik hizkuntz desberdinak ikasteko erabiliko dute.

Baita pertsona batzuk bere lan propioan erabiliko dute eta beste batzuk lanaldiaren munduan jardungo dute.

